

## Denetarako gai

*Euskaldunon Egunkaria*, 1995-10-08: 31.

Sabin Caracasen ezagutu nuen. Gure aitek ezagutzen zuten elkar abertzaletasunean; gu biok, Centro Vasco zeritzaneko Eusko Gaztedin; urte berean heldu ginen, 1947an. Nire lehenengo lanbidea Sabinekin batera aurkitu nuen, General Motorsen, eta geroztik lagunak izan ginen. Ez lan beretan, zeren eta neuk kazetaritzari eutsi nion setati, eta berak, joera berekoa izan arren, askatasun pertsonala zuen maiteen eta beste euskaldun batzuekin Venezuelako baso handietan abenturan sartuta ibili zen. Aurretikoak Flandrian eta beste txikitandik izandakoak grazia handiz kontatuak geratu dira "Txingo" Elkar argitaletxean argitaratutako elaberrian. Beste bat badu argitaratu gabe, Venezuelakoekin jakingarria dena; argitaratuko ahal diote! Euskal lanetan ere aritu zen Caracasen, batez ere 'Eusko Deia' izeneko irratian. Mintzalari oso ona zen. Ahalmen eta prestakuntza ugaritako mutila zenez gero, beharbada hau, lan frankotan sartzeko bere erraztasuna, bere kalterako izan zen. Denetarako gai zen! Hara beraz bere abantailaren desabantaila. Sabinekin askotan esaten zidan bezala, "eskuturra mehea baina indar gutxi". Umore fineko mutil bizkor eta langilea zen. Zorion bat izan zuen denen gaineratik, Lazkaotik joan zen bere emazte Miren Caracasen aurkitu izana, honi esker eutsi baitzion bizierari, fantasian gehiago hondoratu gabe. Nire dolumina Mireni, goian bego Sabin lagun leiala.